



Aitor Montes medikuak euskaraz lan egiteagatik jasotako jazarpena salatu dute

Azaroaren bukaeran, paziente baten larrialdietarako deribazioa euskaraz idazteagatik kontuak eskatzeko deitu zioten Arrasateko larrialdi zerbitzuetatik Aitor Montes mediku eta OEEkideari. Gertaera salatzeke, ospitaleko zuzendaritzara jo zuenean ez zuen haren babesa jaso. Gauzak horrela, Arrasateko Euskaldunon Hizkuntza Eskubideen Protokoloak antolatuta, abenduaren 1ean eguerdian elkarretaratzea egin zuten Debagoieneko ospitalearen aurrealdean.

Albiste osorik irakurri [hemen](https://www.mondraberri.eus) (Mondraberri.eus).



Debabarreneko ESko Tokoginekologia Zerbitzuak arreta-ibilbide guztia euskaraz jasotzea ahalbidetu nahi du

[Osakidetzak](#) euskara hutsez argitaratzen duen [Osatuberri](#) aldizkariak jakinarazi duenez, Debabarreneko ESko Tokoginekologia Zerbitzuak arreta-ibilbide guztia euskaraz jasotzea ahalbidetu nahi du. Haurdunaldi-prozesua ama-hizkuntzan egiteak "arreta osoa" eskaintzea eta "gozotasuna" ditu xede, eta beste zerbitzuetara zabaltzea du hurrengo helburua.

Albiste osoa irakurri [hemen](#).



Erabileraren Aroari hasiera ematea erabaki du Euskaltzaleen Topaguneak

[Euskaltzaleen Topaguneak](#) azaroaren 18an Arrasaten egin zuen "Batera Jauzi" Kongresuan, datozen 10 urteetan euskararen erabileran jauzi bat emateko behar ditugun baldintzak adostu zituen, ekosistema linguistikoan nahi dugun aldaketa gerta dadin.

Kongresuko dokumentua [hemen](#), PDF formatuan.



Euskaren Egunaren lehiaketa OEEkideentzat, urtarrilaren 10era arte

Euskaraz noiz eta nola idatzi den ezagutzeko lehiaketan parte hartzeko aukera urtarrilaren 10era arte luzatzea erabaki dugu. Galdera gehien asmatzen dituzuen OEEkideen artean Xiberuko Ikastolen aldeko saski bat zozketatuko da. Aurrera!

Lehiaketan parte hartzeko [hemen](#).